



Hitzak osatzen

Jarduera honen bidez, ikasleei ikusarazi nahi diegu askotan ez garela konturatzen gure esku dagoela egoerak hobetzeko lehen pausoa ematea. Maiz, ez gara ohartzen gure egoismotik atera behar dugula eta besteei laguntzeko pausoa eman behar dugula, elkarlanean jardunez, egoerak hobetu daitezzen.

Moztu hitz hauek osatzeko behar diren hizkiak. Hitzak aurtan landuko dugun gaiarekin lotuta daude:

amatasuna, justizia, hezkuntza, berdintasuna eta errespetua.

Guztira: 9A, 5T, 5U, 5E, 4S, 4N, 3I, 3Z, 3R, 1P, 1D, 1B, 1K, 1H, 1J eta 1M.

Gorde hizki horiek bost gutun-azalean, desordenatuta, inor ez dadin gai izan bere gutun-azalean dauden hizkiekin zuzenean hitz bat osatzeko.

Jarri ikasleak gutxienez sei pertsonako taldetan, bost hitzak osatzen ari daitezzen eta gainerakoa edo gainerakoak behatzaile izan daitezzen. Talde guztietan kide kopuru bera ez badago, handitu taldeetako behatzaileen kopurua.

Jokalari gisa arituko den ikasle bakoitzarentzat gutun-azal bat prestatu, eta behatzaile bakoitzarentzat oharren orri bat.

Jarri ikasleak taldeka. «Jokalaria» mahai baten inguruan eser daitezela. Mahaiaren inguruan jartzen diren bitartean, eman behatzaileei beren taldearen gutun-azalak eta beren orria: esan orria irakurtzeko eta galdetu ondo ulertu duten zer egitea dagokien. Jokalaria mahaiaren inguruan eserita daudenean, eta behatzaileak zutik, adierazi zer egin behar duten:

«Bakoitzari gutun-azal bat emango diot. Gutun-azal horretan, hizki batzuk ikusiko dituzue, eta hizki horiekin arbelean idatzitako hitzetako bat osatu beharko duzue. Baina adi, lau arau bete beharko dituzue eta:

- *Bakoitzak isilean osatu behar du bere hitza, inolako keinurik egin gabe.*
- *Ezin dizkiozue hizkiak inori eskatu edo kendu. Hizkiak lortzeko modu bakarra da beste pertsona batek zuei ematea.*
- *Nahi baduzue, hizkiak eman diezazkiekezue taldeko beste kideei, baina ezin dituzue hizkiak kokatu.*
- *Bukatzen duzuenean, isilik geratu, besteei keinurik egin gabe. Taldearen lana amaituko da taldeko guztiek beren hitzak bukatzean.*

Behatzaileek egiaztatu behar dute taldekoek arauak betetzen dituztela.»

Egiaztatu denek ulertu dituztela arauak; bai jokalariek, bai behatzaileek. Orduan, eman jokalaria bakoitzari gutun-azal bat, eta esan ez irekitzeko zuk esan arte.

Jarduera bukatzean, egin hausnarketa, honelako galderak eginez:

Jokalariei

- Nola sentitu zarete jokoan zehar?
- Zer eragozpen topatu dituzue? Nola gainditu dituzue eragozpenak? Zer jokaerak lagundu dizuete eragozpenak gainditzeko eta zeintzuek ez dizuete lagundu?
- Taldeko kideek lagundu al diozue elkarri?
- Zer sentitu duzue hitza osatu ezin zenutela ikustean?
- Eragozpenik izan al duzue hizkiak besteei emateko?

Behatzaileei

- Zeintzuk dira jokalarien artean ikusi dituzuen jokabideak, gehien errepikatu direnak?
- Ez eman inoren izen-abizenik, baina jokabide eskuzabalik ikusi al duzue?

Denei

- Zuen ustez, eskuzabalak izan al zarete?
- Zer ikasi duzue eskuzabaltasunari buruz?



Eranskina

Behatzaileentzako oharrak

Ezin diezue jokalariei lagundu eta ezin diezue gomendiorik eman.

Egin behar duzuen hau da:

- Taldeko jokalaria guztiek arauak betetzen dituztela egiaztatu:
- Ezin dute hitz egin eta ezin dute keinurik egin.
- Ezin dute beste inoren hizkirik hartu, eta ezin dute hizkirik eskatu (nahi badute, beren hizkiak beste norbaiti emateko aukera daukate, baina ezin dituzte hizkiak kokatu).
- Hitza osatzean, isilik geratu behar dira eta ezin diete besteei lagundu.

Hau ere egin behar duzue:

- Zuen taldeko jokalarien jokabideari begiratu:
- Begiratu taldeko gainerako kideekiko eskuzabalak diren.
- Begiratu zer harreman mota dagoen jokalarien artean: lankidetzak, axolagabezia, lehia.
- Jokabideak (positiboak edo negatiboak) eta partaidetza.